# eibar kultura

abendua
diciembre 2002

Eibarko Udala Zb./Nº 14

## EIBAR ARGIPEAN. CASTRILLO ORTUOSTE. 100 AÑOS DE FOTOGRAFÍA

## KOKEIN - KONTZERTUA

## GABONAK 2002



"1932ko irailaren 13a. Errepublika Plaza". Eibarko Udal Artxiboa

argitaritzailea:
Eibarko Udala
koordinatzailea:
PORTALEA. Kultur Etxea
idatziak, diseinu eta maketazioa:
ARBI Edición
inprimategia:
GERTU
Tirada:
7.000 ale

PORTALEA
Eibarko Udala
Bista Eder, 10 20600 Eibar Gipuzkoa
Tel. 943 707 153 • Fax 943 200 602
cultura.ei@eibar.net

**eibar-kultura**k bere ekintzen berri eman nahi duten herriko talde eta elkarte guztiei ateak zabaltzen dizkie

**eibar-kultura** abre sus páginas a todos los grupos y asociaciones locales que quieran informar de sus actividades.

## ORDUTEGIAK / HORARIOS

| | | |
|---|---|---|
| **UDAL LIBURUTEGIA**<br>Portalea<br>Tfnoa.: 943 70 72 10<br>biblioteca.ei@eibar.net | astelehenetik ostiralera<br>de lunes a viernes<br>larunbat, igande eta jaiegunetan<br>sábados, domingos y festivos | 9,00-13,30<br>16,00-20,30<br>10,00-13,00<br>16,00-20,00 |
| **PORTALEA**<br>Erakusketa Aretoa | astelehenetik igandera<br>de lunes a domingo | 18,30-20,30 |
| **ARRATE KULTUR ELKARTEA TOPALEKU**<br>Zuloagatarren, 3<br>Tfnoa.: 943 20 22 99<br>www.geocies.com/arratekultu | astelehenetik ostiralera<br>de lunes a viernes<br>larunbat, igande eta jaiegunetan<br>sábados, domingos y festivos | 19,00-21,00*<br><br>12,00-14,00<br>19,00-21,00 |
| **ERROTA GAZTELEKUA**<br>Karmen kalea, 3<br>Tfnoa.: 943 82 01 05 | astelehenetik ostegunera<br>de lunes a jueves<br>ostiraletan<br>viernes<br>larunbat, igande eta jaiegunetan<br>sábados, domingos y festivos | 17,00-20,00<br><br>17,00-20,30<br><br>16,30-20,30 |
| **KZGUNEA**<br>Karmen kalea, 3<br>Tfnoa.: 943 12 03 90<br>www.kzgunea.net | astelehenetik ostiralera<br>de lunes a viernes | 9,00-13,00<br>16,00-20,00 |

## EGITARAUA / ÍNDICE

or/pág
3 50. URTEURRENA. ARRATE KULTUR ELKARTEA
4 erakusketak/exposiciones
EIBAR ARGIPEAN. CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA. 100 AÑOS DE FOTOGRAFÍA
5 hitzaldia/conferencias
"ETORKIZUN SOLIDARIO BATERUNTZ" Martitzenetako Hitzaldiak
6 irudia/imagen
CINE INFANTIL AMAÑA
musika/música
ELGOIBARKO MUSIKA BANDA
EIBARKO TXISTULARI ETA MUSIKA BANDA
7 musika/música
KOKEIN TALDEAREN KONTZERTUA
8 hitzaldiak/conferencias
"EUSKARA SEXISTA OTE DA"
"EL PAPEL DE LOS NOTARIOS EN LA COMPRA-VENTA Y/O ARRENDAMIENTO DE VIVIENDA. SU LABOR DE ASESORAMIENTO"
CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN "CAMBIA TU MIRADA"
DÍA DEL VOLUNTARIADO
9-12 GABONAK 2002

# 1952-2002
## 50 URTEURRENA
### ARRATE KULTUR ELKARTEA

# QUINCENA DE FOTOGRAFÍA

**Del 10 al 25 de Diciembre**
**Cuatro exposiciones en paralelo en 4 espacios de la localidad**

## IÑAKI IZQUIERDO - SESTAO

**Topaleku Aretoan**
**Fotos mineras. Colección de fotografías sobre la zona minera del museo de las Encartaciones, cedida por las Juntas Generales de Bizkaia**

## GREGORIO HUESO - PAMPLONA

**Hogar del Jubilado de Untzaga**
**Muestra de fotografías Polaroid modificadas y ampliadas.**

## JOSÉ LUIS IRIGOIEN - SANTURTZI

**Kultu Taberna**
**Senegal**

## COLECTIVA DEL GRUPO DE FOTOGRAFÍA DEL CLUB DEPORTIVO DE EIBAR

**Café Ambigú**

# ERAKUSKETA

**Azaroaren 29tik Abenduaren 8ra - TOPALEKU**
**Astegunetan: 19etatik 21etara.**
**Larunbat eta Jaiegunetan: 12etatik 14etara eta 19etatik 21 etara.**




Arrate Kultur Elkartearen 50. Urteurrenaren ospakizunak aurrera doaz, eta hilabete honetan erakusketa ederra antolatu dute Topalekuan. Urte batzuk pasa dira Sociedad Cultural Recreativa Arrate izenarekin jaio zenetik gure 'Kultu', eta 1962. urtezkeroztik dago gaur egun ezagutzen dugun lekuan kokatuta. Oso urte oparoak izan ziren Kulturentzat, musika, antzerkia, arte erakusketak, zinea... baina guzti hori beherantz egin zuen hurrengo urteetan, eta desagertzeko zorian ere egon zela esan daiteke.

90-91 urteetan, Topalekua jaio zen, eta bertan hainbat eta hainbat artisten lanak ikusi ahal izan ditugu. 50 urte pasa dira, eta Arrate Kultur Elkarteak indarberriturik eta beste hainbeste urtetarako gure artean egoteko asmoarekin jarraitzen du. Zorionak!

*Agirre Zenitagoya*
*Azpilicueta*
*Beorlegui*
*Baroja Collet*
*Barrena*
*Eguren*
*Fdz. de Maruri*
*Galarza*
*Gojenola*
*Goikoetxea*
*Güenaga*
*Gisasola*
*Kareaga L.*
*Irigoien*
*Larrañaga P.*
*Larrañaga I.*
*Sarasketa*
*Plaza*
*Zuazo*
*Zugasti*

# EIBAR ARGIPEAN. CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA.

**Liburuaren aurkezpena eta erakusketaren zabaltze-eguna**
**Tokia: Eibarko Portalea Kultura Etxean.**
**Eguna: 2002ko abenduaren 20an**
**Ordua: 19,30ean**

***Presentación del libro e inauguración de la exposición***
***Fecha: 20 de diciembre de 2002***
***Hora: 19,30h.***
***Lugar: Eibar, Casa de Cultura Portalea.***

## Abenduak 20 - Urtarriak 9 - PORTALEA - 24 Diciembre - 9 Enero

Ego Ibarra Batzordeak liburu berria kaleratuko du datorren abenduaren 20an. "Eibar Argipean. Castrillo Ortuoste Fondoa. 100 años de fotografía" liburuak Udal Artxiboan dagoen Castrillo Ortuoste argazki-bildumako hainbat irudi bilduko ditu. Castrillo-Ortuoste familiak hiru argazkilari belaunaldi biltzen ditu: XIX. mende amaieran Roman Ortuoste hasi zen argazkiak ateratzen; ondoren, Victoria Ortuostek eutsi zion aitaren ofizioari eta leinuaren batetik besterako katea lotu zuen; bera izan zen Eibarrek izan zuen lehenengo emakume argazkilaria eta Bilboko Feliciano Castrillo argazkilariarekin ezkondu zen; azkenik 1954.urtetik aurrera, Feliciano Castrillo Ortuoste, Julián Etxeberria kalean izan zuen estudioa. Argazki-bilduma horrek Eibar azkenengo 100 urteotan zelakoa izan den eta nola bizi izan den erakusten digu.

Liburuaren aurkezpena Eibarko Portalea Kultura Etxeko Areto Nagusian izango da, abenduaren 20an, arratsaldeko 19,30etan. Ongi etorri bertara!

Egun berean zabalduko da Kultura Etxeko Erakusketa Aretoan Castrillo Ortuoste argazki Bilduma izeneko erakusketa, argazki fondo horretan gordeta.



1948 inguruan. Norma lantegiko "fileteadoreak"
*1948 aprox. Fileteadores de bicicletas en la fábrica Norma.*



1895 inguruan / *1895 aprox.*



1933 inguruan. Probalekuan egindako Emakumeen Tiro Txapelketa / *1933 aprox. Campeonato de Tiro femenino celebrado en el Banco de Pruebas*



1951. Monjak eta ikasleak txango egunean "La Guipuzcoana" konpainiako autobusean / *1951. Excursión de alumnas y religiosas en un autobús de la empresa "La Guipuzcoana"*

# 100 AÑOS DE FOTOGRAFÍA



1920 inguruan / *1920 aprox.*



Fiamma kamera, 1910. Urte inguruan Firenzen egindakoa
*Cámara de estudio Fiamma, realizada en 1910 aprox. en Florencia (Italia)*

*En esta nueva publicación, "Eibar Argipean. Castrillo Ortuoste Fondoa. 100 años de fotografía en Eibar" se recogen más de 360 imágenes del fondo municipal Castrillo-Ortuoste, en las que se resume la vida de Eibar y los eibarreses a partir de las fotografías realizadas por esta familia de fotógrafos durante los últimos 100 años. Son tres generaciones de fotógrafos: Román Ortuoste, que realizó sus primeras fotografías a finales del siglo XIX; su hija Victoria Ortuoste, la primera mujer en Eibar dedicada a la fotografía profesional, casada con el fotógrafo bilbaino Feliciano Castrillo; y desde 1954 Feliciano Castrillo Ortuoste, que tuvo su estudio en la calle Julián Etxeberria.*

*El mismo día se inaugurará la exposición "Eibar argipean. Castrillo Ortuoste Fondoa. 100 años de fotografía", con una selección de fotografías del fondo que incluye trabajos realizados en fotografía industrial, reportaje social y retratos de galería. También se expondrá el material utilizado por la familia Castrillo-Ortuoste: cámaras de principios del siglo XX, focos y fondos de estudio, ampliadoras y equipo de laboratorio.*



"La Marcial" musika-banda 1914
*Banda de Música "La Marcial" en 1914*

## Martitzenetako Hitzaldiak

# "ETORKIZUN SOLIDARIO BATERUNTZ"

### HITZALDIA

**Anjel Lertxundi**

**Abenduaren 3an**
**19,30 ean. - PORTALEA**

**Lertxundiren iritziz, pertsonek "sare etiko" antzerako bat behar dugu, teknologia berriek ekartzen diguten aurrerapen guztiak ondo aprobetxatzeko eta gure arteko erlazioak babesteko.**

**Lertxundik, solidaritza, justizia eta askatasunean oinarrituriko gizartea defendatuko du bere hitzaldian, nahiz eta, berak dioen moduan, "intelektualki zaila izan honen abantailak zeintzuk diren azaltzea".**

a & música & musika & m

musika & música & musik

# AMAÑA KULTUR ARETOA

## CINE INFANTIL

### "MOMO"

1 Diciembre - 17,00 h.

### "HOMBRES DE NEGRO II"

8 Diciembre - 17,00 h.

### "ASTERIX Y OBELIX. OPERACIÓN CLEOPATRA"

15 Diciembre - 17,00 h.

## ZAPATUKO IPUINA

Abenduakk 28 - 18,00 etan.
Umeen Liburutegian - PORTALEA

# ELGOIBARKO MUSIKA BANDA

**Abenduak 1 - ASTELENA FRONTOIAN**

Abendua ondo asteko, hilaren lehenengo egunean, Domekan, Elgoibarko Musika Bandak kontzertu bikaina eskeiniko du Astelena frontoian goizeko 12.15etan. Aldez aurretik, 11.15etan, kalejira egongo da Untzaga enparantzan hasita.

# EIBARKO TXISTULARI ETA MUSIKA BANDA

**Abenduak 15 - 12,30 ean. - ASTELENA FRONTOIA**

Aurten ere, urtero moduan, Eibarko Txistulari eta Musika Banda entzuteko aukera egongo da Gabonak baino zertxobait lehenago. Aurten, eibartarrontzat urtero eskeintzen duten kontzertua, abenduaren 15ean ospatuko da, ohitura den moduan, Astelena frontoian, goizeko 12.30etatik aurrera.



# DOINU BERRIAK EIBARREN "KOKEIN" TALDEAREN ESKUTIK

**Abenduak 1 - PORTALEAN - 19,00 etan.**

**Kokein** musika taldea berria ez izan arren, orain dela gutxi kaleratu berri dute euren lehenengo diska. Eibarko lau musikarik osatutako talde honen rock and roll erritmoak **abenduaren 1ean** egongo dira entzungai **arratsaldeko 19etan Portalean**, gure herrian estreinaldiko kontzertua izango den honetan.

Esperientzia asko duten musikariak osatzen dute **Kokein**, eta horrek euren balioaz hitz egiten du. Jatsu, Zaloa, 'Txitxes' eta Lete, Kafha, Luther, Ehun Kilo edo Kukka bezalako taldeetan ibilitakoak dira eta orain dela pare bat urte erabaki zuten elkarrekin ibilbide bati hasiera ematea. Honen fruitua, dagoeneko kalean dagoen lehenengo diska.

Eibartar hauen musika berria entzutea nahi baduzue, ezin dezakezue aukera galdu.

## HITZALDIAK / CONFERENCIAS

# "EUSKARA SEXISTA OTE DA"

**Idoia Ehizmendiren eskutik**
**Abenduaren 4an - 19,00 etan.**
**PORTALEAn**
**Antolatzailea: Gizartekintza eta Andrazkoen faborez**

# "EL PAPEL DE LOS NOTARIOS EN LA COMPRA-VENTA Y/O ARRENDAMIENTO DE VIVIENDA. SU LABOR DE ASESORAMIENTO"

**11 Diciembre - 19,00 h.**
**PORTALEA**
**Organiza: OMIC**

## CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN

# "CAMBIA TU MIRADA"
# "ZURE BEGIRADA ALDATU"

- **2 de Diciembre, a las 19,00 h. en Portalea**. Conferencia **"Actualidad y futuro de los inmigrantes"** a cargo de Omer Bertin Oke, director de inmigración del Gobierno Vasco.
- **3 de Diciembre, a las 19,00 h. en Arrate Kultur Elkartea**. **Cuenta Cuentos para mayores: Cuentos y leyendas de la India**

Organiza: Eibarko Elkarkidetzarako Mahaia / Mesa de Cooperación de Eibar

# DÍA DEL VOLUNTARIADO

- **2 de Diciembre, a las 18,00 h. en el Hogar de Jubilados de Untzaga**. Charla **"Envejecer en positivo"** a cargo de Mónica Ramos, Antropóloga del Instituto Nacional de Gerontología Social, Madrid.

**VIDEO DOCUMENTAL SOBRE EL VOLUNTARIADO NAGUSILAN**

- **9 de Diciembre, a las 18,00 h. en Untzaga**.
- **10 de Diciembre, a las 18,00 h. en Ipurua**.
- **16 de Diciembre, a las 18,00 h. en Beheko Tokia**.
- **18 de Diciembre, a las 18,00 h. en Centro Gerontológico Ego-Gain**.

Organiza: Nagusilan-RSVP. Jubilado/as Voluntarios

# ZUHAITZA, ARGIAK, POZA, OPARIAK...
# GABONAK HELDU DIRA!

Azkenik, Gabonak heldu zaizkigu Eibarrera. Abenduaren azkenengo egunak eta urtarrileko lehenengoak, zorionez, sorpresaz eta emozioez beteriko egunak izaten ohi dira. Olentzero, Errege Magoak, guai-a eta, azken finean, familiarekin gozatzeko egunak dira heltzen zaizkigunak. **Zorionak guztioi eta urte berri on!**

# OLENTZERO

Zeruko izarra jarraituz heldu omen ziren Errege Magoak Jesusengana, baina gure Euskal Herriko 'izar' partikularrena Olentzero dugu. Urtero, bere baserritik jeisten da, ondo portatu diren haurrei opariak ekartzera. Hori bai, ikatza ere badu hain onak izan ez direnentzako. Dena dela, haurrek jakin badakite Olentzerok eurek nahi dutena ekarri diezaiedan, aurretik eskutitz bat idatzi behar diotela. Eskutitzak, Portalean utzi behar dira abenduak 9 eta 19 bitartean. Gero, gabon gaba egunean, Olentzero gure herrira iritsiko da arratsaldeko 7etan, haur guztiak agurtzeko.

- Del 9 al 19 de Diciembre. **Recogida de cartas al Olentzero** en Portalea
- Del 18 al 20 de Diciembre. **Visita del Olentzero a los centros de preescolar**
- 24 de Diciembre
  - 18,30 h. **Reparto de regalos** en Portalea
  - 19,00 h. **Pasacalles del Olentzero** acompañado por la Banda de Txistularis, alumno/as de acordeón de la Escuela de Música y Pantxika



# bolo-bolo

## LEHIAKETAK

- **Futbito**. Abenduak 10, 18,30ean.
- **Ping-pong**. Abenduak 13, 18,30ean.
- **Partxis**. Abenduak 15, 18,30ean.

## TXISTORRADA

- Abenduak 20, 18,00etatik aurrera.

## IKASTAROAK

- **"Larrua lantzen".** Abenduaren 26 eta 27an, 18,30ean.
- **"Kamisetak margotu".** Urtarrilaren 2tik aurrera, 18,30ean.

## IRTEERAK

- **Txuri-Urdinera irteera.** Abenduak 30

## ANTZERKIA

- Antzez-lana: **"Inperfektua izan nahi dut"**. Abenduak 29, 19,00etan.

## DJ FESTA

- Urtarrilak 3, 17,00etatik aurrera.



# agur.../...kaixo



## SAN SILVESTRE

**Organiza:**
**EIBARKO KORRIKALARIAK**
**31 de Diciembre - 16,30 h.**
**PRESA DE AIXOLA**

La tradicional carrera popular de San Silvestre volverá este año a la presa de Aixola para todos aquellos que quieran despedir el año de una manera saludable, con una pequeña carrera hecha para disfrutar, en la que se trata de dar una vuelta a la presa de Aixola, cada uno al ritmo que desee aunque, eso sí, los más entrenados tendrán la posibilidad de medir sus fuerzas en una segunda vuelta que generalmente resulta apasionante.

## SUBIDA A URKO

**Organiza:**
**CLUB DEPORTIVO EIBAR**
**Colabora: ...eta kitto!**
**1 de Enero**

Para los que prefieran recibir el año haciendo un poco de ejercicio, tampoco el 2003 se librará de la tradicional subida a Urko, aunque, eso sí, los que lo deseen tendrán que aparcar la resaca de Nochevieja y estar presentes en Untzaga a las 9,00 horas para, hacia las 10,00, llegar a Urko donde, a modo de recompensa, todos los 'mendizales' tendrán la posibilidad de degustar caldo y chorizo en Ixua.

# Polideportivo Ipurua

Los domingos días 1,15,22 y 29, el polideportivo Ipurua abrirá sus puertas para todos aquellos que deseen patinar, como viene siendo habitual en los últimos años. El horario será de 18,00 a 19,00 horas, para los más pequeños, y una hora más tarde, es decir, de 19,00 a 20,00 horas para los adultos.

# ERREGE MAGOAK

Olentzeroaz gain, Errege Magoak ere ez dira aurten faltako Eibarko kaleetan. Izan ere, Ekialdetik urtero datozen Meltxor, Gaspar eta Baltasar, urtarrilaren 5ean agertuko dira gure herrian, arratsaldeko 19,00etan, eta, azkenengo urteetan ohitura den moduan, trenean iritsiko dira, eta Estaziño kaletik hasiko dute Eibarko erdialdetik zehar egingo duten ibilbidea. Urtero urtero, Eibarko pertsonai famatuak edo urtean zehar garrantzia izandakoak joaten ohi dira kabalgatan eta aurten, nola ez, ohorea Eibarko Arrate Kultur Elkartekoentzat izango da, euren 50. Urteurrena ospatzeko eta eskertzeko asmoarekin.

Errege magoek ere, Olentzeroarekin gertatzen den bezala, eskutitza behar dute umeek zer nahi duten jakiteko, eta eskutitzak Portalean utzi beharko dira Abenduak 20tik 30era. Oso bidai luzea egin behar dute eskutitzak, horregatik komenigarria da ahalik eta azkarren bidaltzea, opariak bukatu ez daitezen edo bakoitzak nahi duena erosteko denbora izan dezaten ekialdeko magoek. Dena dela, urtarrilak 5ean, arratsaldeko 17,30etan, hiru errege magoak Portalean egongo dira umeei opariak banatzen. Hori bai, urtean zehar onak izan direnei behinik behin.



- Del 20 al 30 de Diciembre. **Recogida de cartas a los Reyes Magos** en **Portalea**
- 5 de Enero
  - 17,30 h. **Reparto de regalos** en Portalea
  - 19,00 h. **Cabalgata de los Reyes Magos** acompañados por la Banda de Música de Eibar.



## UMEENTZAKO GABONETAKO PARKEA

**Abenduaren 26tik**
**Urtarrilaren 4ra**

**ARMERIA ESKOLA**

**11,00etatik 13,30ra eta**
**16,00etatik 20,00etara.**

Gabonak, orokorrean, oso egun bereziak izaten ohi dira umeentzat. Olentzeroa, errege magoak, opariak... baina horretaz gain, ez dago zalantzarik Eibarko gaztetxoenak GUAI parkea atsegin dutela ikaragarri. Aurreko urteetan gertatu izan den moduan, aurten ere ume asko espero dira Armeria Eskolan. Izan ere, eurentzat eginbeharrak ez dira faltako. Eraikin puzgarriak, zezen mekanikoa, irrati, ilea-paindegi, eskulan.. etabarreko tailerrak, ikuskizunak, kon-kurtsoak... Umeentzat aukera ezinhobea jai egunak giro ederrean igarotzeko.

GUAI parkera sartzeko, eta aktibitate guztietan parte hartzeko bonoak erosi daitezke, 15 euroko prezioarekin. Hauek, Portaleako 3. Pisuan egongo dira salgai abenduaen 9tik 13ra, 11,00etatik 13,00etara. Bonoa erosten ez bada, eguneroko sarrerak, 2,70 euroko balioa izango du.

- Umeen saioak: Kezka Dantza Taldea, Eibarko Ballet Taldea eta Eibarko Polikiroldegiko Gimnasia Erritmiko Taldea, 18,00 etan.
- Abenduak 29, 3 eta 4 filme emanldiak, 18,00 etan.
- Urtarrilak 2: bide heziketa lehiaketako sari banaketa